

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2012ko irailaren 25a. IX. urtea. 2.405. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Tolosaldeko EAJk bosgarren edukiontzia aldeko apustua berretsi du

Tolosan egin bezala, eskualde mailan ere, atez ateko hondakin bilketaren kontrako sinadurak bilduko dituztela azaldu du alderdi jeltzaleak ◦3

Bizikleta «eguneroko garraio bide» bihurtzeko plana

Tolosaldeko Bizikleta Plana aurkeztu berri dute Tolosan; ingurumenaren eta osasunaren aldeko apustua dela dio Irazusta egileak ◦2



Ikasleek proposamenak egiteko aukera ere izan zuten, besteak beste... u.



A.MAZ

→ **Mikel Alkorta nagusitu da.** Jende asko bildu zen herenegun Zizurkilgo Zaldu baserriko belardietan, Asteasun bizi den Mikel Alkorta donostiarraren eta Jexux Mari Ormaetxea *Urki* orenda indarraren arteko apustua ikusteko. Bost kilometro egin zituzten korrika eta ondoren, ordu eta erdira iritsi arte, segan aritu ziren. Alkortak 200 kiloko aldea atera zion azkenik, *Urki*. Alkortak «poztasun sentimendua barrutik kendu ezinik» dagoela dio, eta «gustura» aritu zela, «gozatuz», alegia. ◦6

Irailak 26 Greba orokorra

Bihar, irailak 26, ez da TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkaririk argitaratuko egunkariko lantaldeak bat egiten baitu hainbat sindikatuk deitutako greba orokorrarekin. Hurrengo alea irailaren 27an argitaratuko da.

Tolosako ikastetxe guztiek egin dute bat udaleko hezkidetzaz programarekin

‘Hezkidetzaz emozionala lantzeko egitasmo integrala’ izenpean genero indarkeriaren prebentzioa landuko dute aurrerantz ◦2

FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK
902 402 900
www.funerariavascongada.com



Genero indarkeriaren prebentzioa landuko du Tolosako Hezkidetzaren planak

Herriko ikastetxe guztiekin elkarlanean abiarazi du plana udalak, Harremanak elkartearekin batera

Itzea Urkizu

Abian da Tolosan, *Hezkidetzaren emozionala lantzeko egitasmo integrala* izenburupean, genero indarkeriaren prebentzioa landuko duen proiektua.

Tolosako Udaleko Berdintasun sailak hezkidetzaren programa martxan jartzea erabaki zuen, eta Harremanak hezkidetzaren elkartearekin batera sortu du plana; herriko ikastetxe guztiak, gainera, elkarlanean ariko dira eurekin. Horrela beraz, pasa den ekainean hasi ziren Laskorain, Hirukide, Samaniego, Orixe, Inmaculada, Tolosaldea LHI eta Peñascal ikastetxeetako ordezkariak elkar-tzen.

Egitasmoa «integrala» dela nabarmendu zuen Harremanak elkarteko Ana Elosegik, eta honako helburuekin sortu dutela: «Sexuen araberako estereotipoak eta rola baxtertuko dituen garapena sustatzea, bereizketa mota oro baztertzea, emakumeen kontrako biolentzia aurreikusitako eta detektatzea eta sexuaren arabera bereizketarik sortzen ez duen orientazio akademiko eta profesionala bermatzea».

Generoen arteko parekidetasunaren esparruak, udalak duela zenbait hilabete genero biolentziaren aurkako protokoloa martxan jarri zuen. Hala ere, Ibai Iriarte alkateak garrantzia handiagoa eman zion, aurkezpenean, prebentzio plan berriari: «Protokoloa irekitako zauriei erantzuteko da, baina gaur aurkezten ari garenarekin, zauri horiek sekula ez sortzeko formula izango dugu».

Horrela beraz, Tolosako gazte-ak etorkizuna direla azalduz, ikas-



Egitasmoa ikastetxeekin elkarlanean egin dute. I. URKIZU

le guztiak baloreetan heztea bere bidezko garrantzia eman zion Iriarte alkateak.

Jarrerak landuz

Ana Elosegik proiektuaren egileak, egitasmoaren osotasuna nabarmendu du. Izan ere, 0 urtetik

Harremanak hezkidetzaren elkarteko Ana Elosegik gidatu du plana

Adin bakoitzari egokitutako formazioa prestatu dute proiektuaren egileek

Edozein herritarri begira, aholkularitza zerbitzua martxan jarriko da Topagunean

18 urtera bitarteko haur eta gazteekin, nahiz helduagoekin ariko dira; guraso eta orientatzaileei ere bideratuko dizkiete trebakuntza eta aholkularitza saioak. Era berean, udaleko gazteria, berdintasuna eta kirol sailekin lotura estua izan nahi dute.

Oinarritzko eduki guztiak generoaren ikuspegitik landuko dituzte: sexualitatea, autoestima, gatazkak, bizikidetzaren emozio eta sentimenduak, harreman afektiboak, trebetasun sozialak, lan orientazioa eta maitasun ereduak. Finean, beraz, jarrerak landuko dituztela nabarmendu zuen Ana Elosegik.

Eduki hauen guztien inguruan, taldekako dinamikan ariko dira, eta adinaren arabera egokitutako saioak prestatu dituzte.

Herritarrei aholkuak

Egitasmoa, ikasleez haratago, herritar guztiei ere zuzendua da; udaleko Berdintasun eta Gazteria sailek, horrela, Aholkularitza Zerbitzua martxan jarriko dute, kultur etxeko Topagunean.

Edozein herritarri irekia izango da, eta sexu aholkularitza, psikologikoa eta juridikoa eskainiko dute, datorren ostegunetik aurrera, hileko azken ostegunero, 17:00etatik 20:00etara bitarte.

Honen harira, esparru honetan edozein zalantza edo galdera egin nahi duen herritar orok, *berdintsez@gmail.com* helbide elektronikoa ere eskuragarri izango du.

• tolosa@hitza.info

Herritarrek autoa alde batera uzteko bizikleta sarea aurkeztu dute

I. Urkizu

Tolosaldeko Bizikleta Plana aurkeztu berri dute «bizikleta eguneroko garraiobide» bihurtu asmoz. Hala azaldu du Biziker Mugikortasun Aholkularitzako Asier Irazusta eta Tolosaldea Garatzen agentziako Garbiñe Mendizabalek.

Asier Irazusta proiektuaren egilea da, eta mugikortasunaren, ingurumenaren nahiz osasunaren aldeko apustu garbia izateaz gain, bere ustez baliabide ekonomiko ere izan daitezke bizikletaren erabilera sustatzearena. Gainera, eskualdeko herritarrek eskaera asko egin dituztela nabarmendu du: «Azpiegiturak eskaintzen direnean, jendeak erabili egiten ditu». Finean, herrietako kale eta errepideetan auto pribatu gutxiago ikustea da helburua.

Eskualdeko udalak

Eskualdeko udalek ere bat egin dute egitasmoarekin, eta bi funtzio nabarmendu dituzte: batetik, Gipuzkoako bidegorri sarea osatuko du bizikleta planak, eta 2015erako osatutako egongo da guztia. Halaber, bizikletaren era-

bilera sustatzeko, hainbat neurri poposatutako dituzte. Besteak beste: aparkaleku bereziak, trafikoa baretzeko neurriak, eta ikastetxetan nahi udal langileen artean bizikletaren erabilera sustatzea.

Filosofia aldaketa

Ibai Iriarte alkateak, filosofia aldaketa izan du hizpide: «Autoak ustez eman dezakeen maila hori buruan izan dugu urteetan zehar, eta horrek aldatu egin behar du». Bide horretan, udala buru-belarri dabil, Tolosaldea hirigunea 30 km/ordu eremua bilakatzeko horretan, eta «bidegorri gehiago egin behar, autoei mugak jartzea» da jomuga, Iriartek azaldu duenez. Honenbestez, oinezko eta bizikletentzako lehentasunezko gune bilakatu nahi dituzte herriko kaleak, datoen hila batean hartuko dituzten neurriekin.

Aipatzekoa da, mugikortasun astearren harira, Tolosako ikasleek Tolosaldeko bizikleta sarearen plana ezagutzeko aukera izan zutela ostiralean.

Ikasle bakoitzak, herriko mugikortasuna hobetzeko proposamenak egiteko aukera izan zuten, gainera.

Irudia > Villabona



BIGARREN ESKUKO AZOKA

Larunbatean Villabonan bigarren eskuko azoka antolatuta zuten, Mugikortasun Astearen barruan. Bertan, herritarrek bizikletak, patinak eta abar erosteko aukera izan zuten. Autoa etxean utziz, garraio publikoaren edo, hain kuxkakorrek ez diren ibilgailuen erabilera bultzatu nahi izan du Mugikortasun Asteak Tolosaldean. A. IMAZ

→ Laburrak

Alkoholiko Anonimoen bilera, gaur

OSASUNA > Alkoholiko Anonimoen Uzturre taldeak bilera egingo du, Corpus Christi parrokiako lokaletan, gaur, 19:30ean hasiko da bilera, eta gaixoez gain, senitartekoak nahiz alkoholaren ondorioez eta sendatzeaz informazioa izan nahi duen edonor bertaratu daitezke.

Tolosa Kantariko entsegua, ostegunean

GIZARTEA > Hilero moduan, iraileko azken larunbatean ere kantujira izango da Tolosan. Larunbat honetan, beraz, 12:00etan Tontokaletik irtegan dira. Hilabete honetan, Oinatz Martinez triktilaria eta konpainiarekin ariko dira Tolosa Kantariko kideak, eta larunbaterako azken entsegua ostegunean izango da, 20:00etan, Eduardo Mokoroa musika eskolan. Edozein herritarrek parte har dezake egitasmoan.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Iragarki laburrak

LANA

■ **Neska euskalduna.** Etxeko lanak egiteko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Interesatuak, deitu 620 30 59 31 telefono zenbakira.

■ **Pintorea.** Tituludun pintorea eskaintzen da, edozein lanetarako. Prezio ekonomikoa. Interesatuak, deitu 680 44 92 73 telefono zenbakira.

Greba orokorraren harira mobilizazioa egingo dute, gaur

Tolosa&Co merkatari elkarteak grebaren inguruan hausnarketa egin du, bizi duten egoera azalduz

A. Imaz

ELA, LAB, ESK, EILAS, EHNE, HIRU, CGT eta CNT sindikatuek, eta beste hainbat gizarte eragilek greba orokorra deitu dute biharko. *Eskubide laboral eta sozialaren alde, murrizketarik ez!* aldarrikatuz, herritarrek kalera deitu dituzte irailaren 26an.

Tolosaldeko Gazteriak bat egin du grebarekin, eta atxikimendua azaltzeaz gain, bezperan, hau da, gaur, mobilizazioa egingo dute Tolosako Trianguloa plazan, 19:00etan.

Tolosaldeko mankomunitateak, greba deialdiaren harira, ondorengo azaldu du: «Irailaren 25eko 22:00etatik hurrengo eguneko 22:00ak arte, ez da zabor bilketa zerbitzurik egongo».

Tolosako udal gobernua ere oharra kaleratu du, bihar hainbat zerbitzu ez direla martxan egongo azaltzeko, «udal enplegatuek eta langileek egindako batzarretan greba deialdiarekin bat egitea erabaki dutelako». Zerbitzuak ondorengoak dira: Udaletxeko bulegoak; Usabal kiroldegia; hondakin bilketa; Aitzol udal euskaltegia; kultur etxea; obretako lantaldea; Tolosa Bus (gutxieneko zerbitzuak); musika eskola (murriztua) eta Tolargi (gutxieneko zerbitzuak).

↓ Hitzorduak

IRAILAK 25, ASTEARTEA

■ **19:00.** Tolosako Trianguloan mobilizazioa, Tolosaldeko Gazteriak deituta: *Gure etorkizuna jokoan dagoelako... Murrizketarik ez!*

IRAILAK 26, ASTEAZKENA

■ **05:30.** Tolosako Usabal kiroldegian, pikete informatiboan topagunea.

■ **11:45.** Donostian manifestazioa.

Tolosaldeko zutabea Anoeta futbol zelaitik irtengo da.

■ **18:00.** Manifestazioa Tolosako Triangulotik abiatuta.

Gutxiengo zerbitzuak ezartzea Eusko Jaurlaritzaren eskumena da. Atzo esandakoaren arabera, garraio publikoen %30a martxan egongo da irailaren 26an. Osasun zerbitzuei dagokienez, jai egun arrunt bateko funtzionamendua izango dute.

Era berean, Villabonako Galder Azkue alkateak oharra igorri du biharko greba orokorra «burujabetzari ekiteko lehen urratsa» dela nabarmenduz. Biharko greba «ez da edozein greba» dio alkateak: «Espainiar estatuak berarekin ondotzerik nahi ez badugu, murrizketei aurre egiteko dagoen bide bakarraren alde borrokatu beharra daukagu, subiranotasunaren alde, burujabetzaren alde. Hau baita, datozen belaunaldiak gure aurrekoei hainbeste izerdi kostatako ongizate gizartea ezagutu dezaten bide bakarra».

Tolosa&Co, grebaren aurrean

Tolosa&Co merkatari elkarte bere kide eta erosleengana zuzendu da greba deialdiaren aurrean. Lehenik eta behin, grebaren aurrean zer egin, norberaren erabakia dela aipatu du. Hala eta guztiz ere, egoera larria dela azaldu du: «Murrizketak kolpe larri bat izan dira hiri merkataritzaren iraupenerako».

Beste hainbat erabakirekin batera, BEZ-aren igoera azpimarratu dute: «Hainbat murrizketek ondorio kaltegarriak badituzte ere, ezin da konparatu BEZa %13 puntu behin-betiko igotzeak dakartzanekin; horrek ekarriko baitu bizimodua garestitzea eta erosketak murriztea, azken urte hauetan ikusi ez dugun mailaraino». Merkealdia desagertzea, ordutegien liberalizazioa, erosleen erosketa ahalmenaren jaitsiera... egoeraren larritasuna agertzen duten datuak dira Tolosa&Co-entzat.

Guzti honen aurrean, merkatari elkarteak ulertzen du «gizarte osoan sortutako ondorena». Hori dela eta, merkatari, ostalari eta zerbitzuko langileei irailaren 26an «egoki joka dezaten» eskatu die Tolosa&Co merkatari elkartetik.

ZUZENKETA: Irailaren 21eko TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariko 4. orrialdeko 'Krisia' («inoizko iruzurrik handiena») dela salatu du LABek albistea oker zegoen. Deialdia ez zuen LAB sindikatuek bakarrik egin, ELA sindikatuek ere eskaini zuten prentsaurrekoa. Barkatu eragozpenak.



Tolosaldeko EAJren hainbat udal hautetsiak. Mahaian, Nagore Puyadena eta Karlos Ormazabal. A. IMAZ

EAJk atez ateko hondakin bilketaren aurkako kanpaina berria aurkeztu du

Alderdiko eskualdeko hainbat udal ordezkariek bosgarren edukiontzia alderdiak agertu dira

Asier Imaz

Tolosaldeko EAJren hainbat udal hautetsi atez ateko hondakin bilketaren aurka agertu dira. Ibarra, Zizurkil, Asteasu, Villabona, Ikaztegietak, Alegia, Irura eta Anoetako ordezkariek, herri hauetan kanpaina bat martxan jarriko dutela azaldu dute, etxez etxe triptikoak banatuz: «Inposatu nahi duguten atez ateko sistemaren kontra sinadura bozkatzeko aukera egongo da triptiko hauetan». Ondoren, sinaturiko orri hauek, korreotako edozein postontzitan bota ahal izango dira esan dute EAJtik.

Kanpainaren aurkezpen ekitaldian triptikoak zergatik banatuko dituzten azaldu dute: «Herritarrek eskatu digute, eta gure uste-tan, herritarrek bere iritzia emateko aukera izan behar dute; ondoren, eta iritzi guztiak kontuan hartuta, dagokion administrazioak erabakiak har ditzan».

Gauzak horrela, atez ateko hondakin bilketa sistemari ezezkoa esan dio EAJk eskualdean, eta bosgarren edukiontzia alderdiaren alde kokatu da. Atez atekoaren aurrean, erabaki politikoa dagoela esan dute, eta «inolako ikerketa ekonomiko eta sozialik egin gabe» inposatu nahi dutela salatu dute EAJren ordezkariek.

Horrez gain, mankomunitateari dagokion erabakia, udalek hartu izana ere kritikatu dute: «Bailarako gainontzeko herrietan izango duen eragina kontuan

hartu gabe hartu dute erabakia, mankomunitatearen funtsa hustuz. Izan ere, Tolosaldeko mankomunitateak zabor bilketa du mankomunitatearen funtsa hustuz. Izan ere, Tolosaldeko mankomunitateak zabor bilketa du mankomunitatearen funtsa hustuz. Izan ere, Tolosaldeko mankomunitateak zabor bilketa du mankomunitatearen funtsa hustuz.

«Bilketa kostua bidertzen du»

Hondakinaren arazoa konpondu beharrean, atez atekoak, areagotu egingo duela esan dute EAJren eskualdeko ordezkariek: «Bilketa kostua biderkatu egingo du, herritarren poltsikoan eraginez, eta hau onartezina da bizitzeko ari garen krisi garai hauetan; etxe bakoitzeko intimitatea ikuskatzen duen sistema da; zabor turismoa deritzona...».

Guzti horri, zaborraren «dikta-durapean» ez dutela bizi nahi

«Ahalik eta gehien saihestu, birziklatu eta konpostatu, hor dago gakoa»

gehitu dute: «Gure egunerokotasuna aldaraziko digun, eta eragina izango duen zabor bilketa sistema gogor bat da».

Udalei dagokienez, EAJren ordezkariek esanetan, ezinbestekotzat jo dute heziketa eta kontzientzia hartzeko bideari jarraipena ematea, «jendeak zaborra gehiago saihestu eta birziklatu dezan, horretarako beharrezkoak diren kanpainak eta neurriak bultzatuz». Hor kokatzen dute gakoa: «Ahalik eta gehien saihestu, birziklatu eta konpostatu». EAJren ustez, gainera, herritarren adostasunerako ardatza litzateke hori. Amaitzeko, bosgarren edukiontzia alderdiak agertu ziren: «Horrek bideratu baitezake zabo-

rraren kudeaketa egokia, eta herritarrek hori egiteko prest daude».

Karlos Ormazabal

Tolosaldeko EAJren ordezkariekin batera, Karlos Ormazabal alderdikide eta Gipuzkoako azpiegitura eta ingurumen diputatu ohiak hitz egin zuen. Bere esanetan, Tolosaldea gauzak nola egin behar ez direnaren eredu da: «Aurreko legealdian betoa jarri zitzaion bosgarren edukiontzia, atez ateko inposatzeko helburuarekin. Arrazoi ekologikoak aipatzen direnean orain, atez atekoaren alde, esan beharra dago, eskualde honetan lau urtetan gaikako bilketa egiteko aukera galdu dela, betoa jarri zitzaialako».

Herritarrek atez ateko ez dutela nahi ere errepikatu zuen Ormazabalek, eta horren argigarri, sinadura bilketak aipatu zituen: «Tolosan, adibidez, 6.000 sinadura bildu dira, Aralarrek eta Bilduk lortutako botoak baino dezentze gehiago».

Herritarrengana eta alderdiki-deengana ere zuzendu zen Ormazabal, presioa egiteko eskatuz: «Alkate batentzat ez da erraza izan behar herritarren aurkako erabakia hartzea, horregatik, presioa sentitu behar dute, azkenean, gauzak adostasunez eta hitz eginda lortzen baitira».

Errauskailuaren inguruan galdetuta, atez ateko bilketaren amaierako sistema harrobiak betetzea edo 2014ean legez kanpo geldituko diren zabortegeak direla salatu zuen Karlos Ormazabalek. Bosgarren edukiontzia amaiera sistema, errauskailua dela esan zuen diputatu ohiak, Gipuzkoako batzarkideen gehien-goak erabakita.

Tolosa



AGUSTIN JIMENEZ, LEIDORREN

Pasa den ostiralean Agustin Jimenez antzezlea izan zen Tolosako Leidor aretoan. Antologia bakarrizko eskalari zuen, eta aretoan bildu ziren 200 lagun inguruk 2 orduko emanaldiarekin gozatzeko aukera izan zuten. Ostiral honetan Purgan antzezlanaren kustumak aurkeztuko dira, 20:30etik aurrera...

Tolosa



ETIOPIAREN ALDEKO AZOKA

Abay gobernuaren kanpoko erakundeak bigarren eskuko azoka antolatzen duen larunbatean, Tolosako Trianguloa plazan, Herriarek emandako produktuak jarri zituzten bertan salgai, eta egun guztian zehar jende ugari ibili zen bertan. Jasotako diru guztia Abay-ek Etiopian dituen proiektuak garatzeko erabiliko dituzte...

Zizurkil



AUZOLANEAN GARBIKETAN

Zizurkilgo Zero Zabor taldeak auzolana antolatu zuen larunbatean. Elbarrera auzorik igarotzen den Asteasu emeka garbitzeko. Dozen bat herritar gerturatu ziren ekimenera, eta bildutako hondakinak herritarren bistan jarri zituzten, bai behintzat urte batez...

Villabona-Zizurkil



EUSKARAREN ALDEKO LASTERKETA

Villabona eta Zizurkil, batetik (irudian), eta Leitza, bestetik, euskararen alde korrika ibili ziren larunbatean. Biak ziren herri lasterketak eta parte hartzaile gehienak, Euskaraz bizi nahi du jarraitzen

Alegia



TXINTXARRIREN 50. URTEURRENA

Alegiako Txintxarri Elkarteak 50 urte bete ditu, eta asteburuan ospatu du ekitaldi ugari egin zituzten bertako bazkideek. Larunbatean bazkari ederrekin egin zuten elkartean, bertsolari eta trikitilarien laguntzarekin. Ondoren, Txintxarri Elkartearen sortzaileei omenaldi xumea egin zuten. Igarandean, Txintxarri abesbatzako eta musika eskolakok kideek emanaldiak eskaini zituzten...

Tolosa



EUSKARAREN BILAKAERA, TERTULIAN

Gaitzaundi Euskara Taldeak Kafé Tertulia antolatu zuen larunbatean. Zerkausia gainean, 20 herritar inguru elkartu ziren, Tolosan euskararen bilakaeraz eztabaidatzeko. Multzoka antolatu ziren, hiru mahaitan banaturik. Mahai bakoitzean galderei baten inguruan hitz egin zuten, eta ondoren, ondoko mahaira joaten ziren. Hitzetik hitzera, ez-tariai bostitzeko aukera izan zuten...

Irura



LEHEN ASTEBURUA AMAITU DA, ORAIN BIGARRENA

Irurako jalek ostiralean hasi ziren, herensugearen jaltzerarekin. Lehen asteburuko ekitaldiak herenegun amaitu ziren, eta aste guztia izango dute irurak atsegin hartzeko. Larunbatean, besteak beste, haur eta gazteen jolasak ikusteko aukera egon zen, txikiak Trinkean eta helduagoak frontoan. Hilaren 28an, ostiralean, festa jarraitzen izango du 17:30etik aurrera. Irinen Lagunak joango dira irurara, haur guztien gozamenarako, eta ondoren, buruhandlekin kalejira egongo dute. Herriak aldarrikapen ekimena antolatuko du jaien barnean, hileko azken ostiralean. Anostarekin batera, bi herriak lotuko dituzte...

Ibarra



JENDE UGARI ELKARTU DA IBARRAKO AZOKA BEREZIAN

Ibarra, Azoka eta Piparra Azoka berezian jende ugari elkartu zen, igandean. Inoiz baino postu gehiago jarri dituzte aurtean, 65 gutxi. Emetrio Arrese parketan eta plazan banaturik. Arane iturriaren inguruan abesbatzako kideek emanaldiak eskaini zituzten...

harpidedun izateak badu saria zozketa

1 Arregi Jatetxea
Bi lagunentzako bazkaria edo afora
 Herriko enparantza, 7 Belsategi
 Tel.: 943 68 30 59
 Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51

2 Mikel Izagirre
Ile mozketari bat
 Gorostel, 27 beheko Tolosa
 Tel.: 943 67 52 49
 Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52

3 Zabala sagardotegia
Bi sagardo kaxa
 Garagarza bazterreko Aduna
 Tel.: 943 69 07 74
 www.zabala.com
 Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53

4 EUREKA! zientziak museoak
Bi lagunentzako bina sarrera
 Mikeltegi, 43-45 Donostia
 Tel.: 943 01 24 78
 Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 54

Parte hartzeko diru edo liburu: **905-82-02-40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunaren kodea, izena, herria, eta zainkariaren izena] parte hartu nahi duzun gari adierazi! Konponetako oharra: zozketaren emaitza geroztik, irabazleak zozketaren emaitza argi ditzate.

TXOKOK hitza

Mikel Alkorta (ezkerrean) eta Jexux Mari Ormaetxea *Urki* (eskuinean), herenegungo apustuan, Zizurkilen. A. IMAZ

Alkorta «oso eroso» sentitu da segan 'Urki'-ren aurrean

Ia 200 kiloko aldea atera dio orendaindarrari; lasterka ez baino segan erabaki da proba

Iñigo Terradillos

Aurreikuspenen aurka, Mikel Alkorta izan zen nagusi Jexux Mari Ormaetxea *Urki*ren aurkako apustuan, herenegun, Zizurkilgo Zaldu baserriko belardietan. Asteasun bizi den donostiarrak 200 kiloko aldea atera zion Orendaingoari. Alkorta «oso gustura» azaldu da, eta probaren biharamunean «poztasun sentimentua barrutik kendu ezinik» dagoela adierazi du.

Urki segan gehiago izango zela

eta Alkortak lasterka egin behar-ko ziola zioten apustuaren aurreko egunetan, baina berak lasterka ez baino segan erabakiko zela lehia adierazi zuen. Eta, horrela izan zen.

Bost kilometro egin behar zituzten korrika, eta ondoren, ordu eta erdira iritsi bitarte, segan aritu behar zuten. Alkorta erritmo bizian hasi zen lasterka, «urduritasunarengatik-edo». Baina, gero lasaitzen joan zen, eta bai Ormaetxea bai eta Alkorta ere nahiko parekatu iritsi ziren segako probara.

Espero baino alde handiagoa Ordu eta hamar minutu zituzten segako probarako. Alkortak azaldu duenez, «gustura» aritu zen segan, «gozatuz»: «Bai jendearen animoengatik, bai eta belarra be-

raren egoerarengatik, oso eroso aritu nintzen belarra ebakitzen». Alkorta Ormaetxearen aurretik ari zen lanean, eta probaren amaierara arte horrela jarraitu zuen. «Ez ninduela harrapatzen ikusten nuen, eta horrek konfiantza ematen zidan, baina, bane-kien saioa bukatu arte ezezela ezer erabakita egongo, Ormaetxeak behetik mozten baitu, beraz, belarra pisatu arte ez zegoen ezer jakiterik». Azkenean, ordea, 2.841 kilo ebaki zituen Alkortak, eta Ormaetxeak 2.649. Egin duen «prestakuntza serioak», beraz, izan du etekina.

Denboraldia bukatu da bi segalarientzat. Datorren urtekoari begira, berriz, zalantza adierazi du Alkortak: «Ikusiko dugu zer egoera aurkezten zaigun».

● tolosaldea@hitza.info

Alustiza eta Ttiki artzain txakurra izan dira onenak Oñatiko proban

Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketa irabazi dute aresoarrek hirugarren urtez jarraian

I. Terradillos Areso

Antonio Alustiza aresoarrak eta Ttiki zakurrak irabazi zuten herenegun, 53. Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketa Oñatin. Hirugarrenez jarraian jantzi du aresoarrek txapela Oñatin. Horrez gain, Nafarroako Txapelketa zaz-

pi aldiz irabazi du, eta Euskal Herrikoa behin.

Oñatiko txapelketan artzain txakur eta artzain onenak elkar-tzen dira, beraz, aresoarrek ez zuten lan erraza izan. Eurekin batera, Castelloko Juli Bayot Chispa txakurarekin eta Jose Mari Jaurregi eta Leze bere txakurra izan dira garaipenaren lehian aritu direnak. Epailleen ustez, baina, Alustizak eta Ttikik egin dute, aurtengoan ere, lanik txukunena.

Akatsik gabeko ariketa egin zuten hiru txakur onenek. Kalitatez, azkar eta txukun egin zuten

lana. Hirurek sartu zituzten ardiak eskortan zazpi minutuko denboran. Bigarren fase horretan, artalde bana izan zuten hirurek.

Azkenean, 320,5 punturekin izan zen garailea Ttiki. Bere atzetik, Chispa sailkatu zen, 316,5 punturekin, eta hirugarren, Leze 316 punturekin.

Bederatzi urte ditu Aresoko Ttiki artzain txakurak. Antonio Alustiza artzainak azaldu duenez, bere azken txapelketa izan zitekeen Oñatikoa, «bere egoeraren arabera ikusiko dut, gehiegi behartu gabe».


Inglaterraiko ironman proban zortzigarren amaitu du Zalakainek

Bertako «maila altua» kontuan hartuta, tolosarra «gustura» azaldu da lortu duen postuarekin

I. Terradillos Tolosa

Iragan irailaren 16an, Ingater-rran ironman distantziako Challenge Henley triatloian parte hartu zuen Egoitz Zalakain tolosarrak, zortzigarren postua erdie-tsiz, 3,8 kilometro igerian, 180 ki-lometro bizikletaz eta 42,2 kilome-tro lasterka egiteko, 8 ordu eta 58 minutu behar izan zituen.

Zalakainek azaldu duenez, bizi-kletaz arazo mekaniko batzuk izan zituen, eta denbora pixka bat



Egoitz Zalakain, Ingaterrean. HITZA

galdu zuen horren ondorioz, baina, hala ere, «gustura» dago lortu-takoarekin, «oso maila altua» izan baitzen.

Tolosarrak Kopenhageko ironmana egin zuen abuztuan, zazpi-garren amaituz. Ingaterrean egin berri duena ironman distan-tziako urteko azkena izango da.

Nafarroako Aizkora Txapelketako finalean lehiatuko da Rekondo

Uhartan jokatu duten kanporaketan hirugarren egin du; finala urriaren 7an izango da, Etxarrin

I. Terradillos Leiza

Jon Rekondo aizkolari leitzarrak Nafarroako I. mailako Aizkora Txapelketako finala jokatu du. Uhartan jokatu zuten herenegun kanporaketa, eta hirugarren egin

zuen, Floren Nazabal eta Donato Larretxearen atzetik.

Bederatzi aizkolari aritu ziren lehian eta euren lana bi kanaerdi-ko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat ebakitzea izan zen. Hiru aizkolariko hiru txandatan aritu ziren. Rekondo Donato Larretxea eta Kañamaresekin batera lehiatu zen, eta bigarren egin zuen, Larretxearen atzetik.

Finala urriaren 7an jokatu du, Etxarri-Aranatzen. Bertan bost aizkolari ariko dira, nor baino nor.

Emakumezkoen paleta ikastaroetan izena emateko aukera dago

Bidegoian, Ibarra, Tolosa, Villabonan eta Zizurkilen eskainiko dituzte; bihar da izena emateko azken eguna

I. Terradillos

Emakumeei zuzendutako paleta ikastaroetan izena emateko aukera dago, bihar arte. Pilota gus-tuko duten neskek kirol honetara gerturatzea, neskez osaturiko tal-

deak antolatuak eta paletan jokatzen irakastea da paleta eskolen helburua.

Bidegoian, Ibarra, Tolosa, Villabona eta Zizurkilen eskainiko dituzte ikastaroak Tolosaldean. Zizurkilen izena emateko 609 43 12 65 (Juan Manuel Erasun) zenbakira hots egin behar da, eta gainerakoetarako, 655 71 94 92 (Ainhoa) zenbakira. Informazio gehiagorako, Gipuzkoako Pilota Federazioa (943 47 14 63) hots egin edo ainhoa.pilota@kirolak.net helbidera idatzi ahalko da.

Garaipen ugari erdietsi dituzte Aurrera Saiaz taldeko pilotariek

I. Terradillos

Gipuzkoako ligaxkako partida ugari izan dituzte asteburuan eskualdeko kadete, jubenil eta senior mailako pilotariek. Bada Aurrera Saiaz taldekoek jokatu dituzten norgehiagoka gehienak irabaztea lortu dute, hamaika garaipen eta hiru porrot, hain zuzen ere. Maila onean dabilzala erakutsi dute, beste behin.

↓ Emaitzak

Kadete banaka
Zestoa-Aurrera Saiaz 13-22

Kadete 1
Zazpi-Iturri 2-Aurrera Saiaz 1 6-22
Aurrera Saiaz 2 - Antigua 22-7

Jubenil banaka
Aurrera Saiaz 1 - Aurrera Saiaz 2 22-13

Jubenil 1
Aurrera Saiaz 3 - Aurrera Saiaz 1 22-17

Jubenil 2
Aurrera Saiaz 1 - Goierrri 21-22
Aurrera Saiaz 2 - Zestoa 22-14

Senior banaka
Aurrera Saiaz 2 - Eskoriatza 1 22-5

Senior 3
Igeldo - Aurrera Saiaz 2 3-22
Aretxabaleta 2 - Aurrera Saiaz 3 22-12

Senior 2
Usurbil - Aurrera Saiaz 1 14-22
Aurrera Saiaz 2 - Arrasate 22-10

Senior 1
Aurrera Saiaz 1 - Hernani 22-13
Aurrera Saiaz 2 - Eibar 17-22

Senior Ohorezkoa
Aurrera Saiaz 1 - Hernani 22-10
Zazpi Iturri - Aurrera Saiaz 2 20-22

Kultur ekitaldi ugari datozen egunetan, Bidegoianen

Igandera bitarte hamaika ekitaldi izango dira; egun nagusiak ostirala, larunbata eta igandeko azoka eguna

I. Terradillos Bidegoian

Bidegoiango Udalak, Ernio guraso elkarteak eta Kukuri kultur taldeak Bidegoiango XXIII. Kultur Astea antolatu dute. Denetarik izango da ondorengo egunetan: hitzaldiak, aldarrikapenak, antzerkia, dokumentalak, eta azoka.

Ostirala, larunbata eta igandea izango dira egun nagusiak. Ostiralean euskal presoak izango dituzte gogoan. Egun horretan, hala-



lazko azokako une bat. HITZA

ber, patata tortilla lehiaketa egingo dute.

Etzi baino lehen eman beharko da izena bertan parte hartzeko. Larunbatean, haurrentzako ekitaldiek izango dute lekua, eta igandean, azoka izango da, postuekin, jatekoarekin, edatekoarekin eta musikarekin.

↓ Egitaraua

GAUR, IRAILAK 25

■ **15:30.** Haur nutrizioari buruzko hitzaldia, Biolurren eskutik, udaletxeko batzar aretoan.

IRAILAK 27, OSTEGUNA

■ **21:00.** *Euskal Herria bere osotasunean* hitzaldia, udaletxeko batzar aretoan.

IRAILAK 28, OSTIRALA HERRIRA EGUNA

■ **19:00.** *Eskubide guztiek*in *Euskal Presoak Euskal Herrira* lelopean, elkarretaratzea, Bidaniko Frontoi aurreko plazan.

■ **19:30.** Patata tortilla lehiaketa, Bidaniko frontoian.

■ **21:30.** *Gazta zati bat* dokumentala, udaletxeko areto nagusian, Angel Oiarbide egileetako batek aurkeztua.

IRAILAK 29, LARUNBATA HAURREN EGUNA

■ **15:00.** Mural artistikoa, Bidaniko frontoian.

■ **17:00.** *Mamuak eta beste bizilagun batzuk* gaztetxoentzako antzezlan.

■ **Ondoren.** Txokolatea banatuko dute.

IRAILAK 30, IGANDEA AZOKA EGUNA

■ **Goiz guztian zehar.** Goiazgo plazan postu ugari izango dira, goiz osoan. Plazan, sagardo eta talo egileen erakusketa, sardinak sagardo eta txakolinaz lagunduta eta trikitilarietz alaituta eta, Goiazko eskolan, garai bateko eta gaur egungo eskolako argazki, bideo eta dokumentu erakusketa izango dira, besteak beste.

Enpresari bat atxilotuta langileen lan baldintzak urratzea leporatuta

Enpresariaren langile batek 10 urte zeramatzen egoera irregularrean, eta Gizarte Segurantzari ez zion inoiz ordaindu

I. Terradillos Amezketan

Gipuzkoan bi enpresari atxilotu ditu Espainiako Poliziak, horietako bat Amezketan, langileen lan baldintzak urratzea leporatuta.

Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak zabaldu du albistea. Amezketan egindako atxilotuta uztailearen 12an izan zen. Atxilotutako enpresariarentzat lan egiten zuten langileetako batek 10 urte zeramatzen egoera irregularrean, eta behin ere ez zion Gizarte Segurantzari ordaindu, ordezkarietatik azaldu dute. Atxilotetak Espainiako Poliziaren Atzerriartasun eta Mugen Probintziako Brigadak egin ditu.

Gripearen aurkako txertoa jartzeko aukera, gaurtik aurrera

Urriaren 31 arte jarri ahal da; alde zuretik ordua eskatzea gomendatu dute Osakidetzatik

I. Terradillos

Gaur hasiko dira gripearen aurkako txertoa jartzeko ibaraldean. Berrobin gaur jarriko dute, 08:30etik 10:30era, eta Elduainen,

13:00etatik 14:00etara. Etzi, berriz, Elduan jarriko dute, 13:00etatik 14:00etara, eta Leaburun, 09:00etatik 10:00etara. Urriaren 2an, Txaraman jarriko dute, 09:00etatik 10:00etara, eta urriaren 3an, Belauntzan eta Oresan 09:00etatik 10:00etara. Gaztelun, berriz, astelehenero jarriko dute 09:00etatik 10:00etara, eta Berastegin, Ibarren eta Lizartzan egunero, urriaren 31 arte. Alde zuretik hitzordua eskatzea gomendatu dute.

◉ Hilberriak eta urteurrenak

JOXEMI GURRUTXAGA LASA

Naia eta Axier gure ikasleen aita



Une latz hauetan bat egiten dugu familiaren saminarekin.



Uzturpe Ikastolako langile, ikasle eta gurasoak.

Ibarra, 2012ko irailaren 25a



IÑAKI ZUBELDIA AIERBE

jauna



Irailaren 22an hil zen Lizartzan, 76 urte zituela.

Azkenerraino maite zenuena erakusten. Eskerrik beroena Otsolar Dantza Taldeko Ohorezko Kapitainari.



Lizartzan, 2012ko irailaren 25a



JOXEMI GURRUTXAGA LASA

jauna



Irailaren 22an hil zen, 50 urte zituela. - Goian bego -



Elduaingo Udala

Elduain, 2012ko irailaren 25a



JOXEMI GURRUTXAGA LASA

jauna



Irailaren 22an hil zen, 50 urte zituela.

Zure lankideek ez zaitugu ahaztuko

Munksjo Paper SA-ko lankideak

Eldua-Berastegi, 2012ko irailaren 25a



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info
Anoeta/Aldea: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:**

BERTAKO
HEDABIDEAK



**Galtzaurdi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

Agurrak



Urte askoan Maite!

Preso eta inheslariak Etxera! Jo ta ke!



Zorionak Maite!

Maite zaitugu!

Agenda

DEIALDIAK

- **Bidegoian.** Kultur Astearren barruan, gaur, 15:30ean Biolur-ek haurren nutrizioari buruzko hitzaldia eskainiko du udaletxeko batzar aretoan.
- **Ibarra.** Ohiko osoko bilkura egingo dute, gaur, 19:30ean.
- **Tolosa.** Ohiko osoko bilkura, gaur, 19:30ean.
- **Ibarraldea.** Gaur gripearen kontrako txertoa hartzeko deia egin dute Elduainen (13:00etatik 14:00etara) eta Berrobin (08:30etik 10:30era). Lizartza, Berastegi eta Ibarren egunero emango dute.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunkoia eta gaukoia: Bronte, C. I. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

agurrak



Laster...

planik onenak egunero, bertatik bertara!

Egun-pasak familiarekin, jatetxeak, abentura, kirol ikuskizunak, antzerkia, estetika... merke-merke eta eskura

Abantailak izena ematen duten lehenengoentzat

Urriaren 31 baino lehen izena ematen baduzu, parte hartuko duzu Kanaria uharteetara astebete doan joateko zozketan.

Eroski bidaiak agentziaren eskutik
EROSKI bidaiak
mercezi duzu



www.mauka.eu

mauka: erraz lortzen den gauza oso onuragarria.
Harria Hitza Erakundeak

berria
EUSKALDEKO